



2024 Mutiloa II

Mutiloarrak elkar-zaintzen



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez



**GIPUZKOA
ETORKIZUNA ORAIN**
Es futuro

Aurkibidea

1

Sarrera
3. or

2

Belaunaldi arteko
GizarteLab:
Mutiloa II
5. or

3

Mutiloarrak
elkar-zaintzen
8. or

4

Emaitzak
12. or

5

Ondorioak
15. or



1

Sarrera

Sarrera

GizarteLAB udalentsako euskarri gisa aurkezten da, herritarrekin konektatzeko, trantsizio demografikoa bezalako gai konplexu bati dagokionez. GizarteLABek ez du "herritarren parte-hartzea" sustatzen duen programa bat garatzen, "Herritarren prestakuntza" baizik. Parte-hartze soziala pertsonen ikasten badute eta ikaskuntza-prozesu horretan beren burua eraldatzen badute bakarrik da iraunkorra. Parte-hartzeak, ikaskuntzarik gabe, porrot egiten du sistematikoki.

Ikaskuntza prozesu soziala da (ez indibiduala). Ikaskuntzak adimen emozionala (eraldaketa pertsonala), komunikazio-adimena (komunitatea sortzea) eta adimen prospektiboa (etorkizunerako orientazioa) bultzatzen ditu, pertsonen beren eraldaketa-prozesuan eta komunitatearen hobekuntzan aktiboki parte hartzea errazten baitie.

Orain dela gutxi egindako hainbat ikerketak baieztatzen dute gure gizartean pertsona asko daudela bakarrik, gaixorik edo familia- eta gizarte-sare oso mugatua dutenak mendekotasun-egoeretan, zainketa aringarrietan, bizitzaren amaieran, heriotzan eta doluan.

Gaiaren konplexutasunak eragotzi egiten du konponbide bat soilik sanitarioa izatea edo dauden zerbitzu publikoei lotuta egotea. Gizarte-komunitateak, alternatiba gisa, dauden zerbitzuen osagarri izango den sistema bat eraikitzen saiatzen dira, deszentralizatua eta autoantolatzen aukerarekin.

Laguntza-sare sozialen balioari buruzko ebidentzia zientifiko ugari dago. Hori dela eta, egoera hori pairatzen duten pertsonen lagunduko dien sare sozial berri bihurtu daitezke.

Arazo nagusia da administrazio publikoek, gehienetan, ez dakitela nola lotu ekimen horiekin diru-laguntzen programetatik harago. Ez dago hausnarketa estrategikorik zerbitzu soziosanitarioen, ekintza komunitarioen eta zainketan diharduten enpresen arteko osagarritasunari eta ekintza bateratu posibleari buruz. Sortzen ari diren ekimen horiek, bestalde, ez daude elkarri lotuta, eta ez dago ezagutza sortzeko estrategia partekaturik.

Etorkizuneko zerbitzu publikoak ulertzeko moduan datza dilema. Gaiari heltzeko modu tradizional batek zerbitzu publikoa eta ekintza komunitarioa bereiztuko lituzke. Hala ere, nazioarteko joera aurreratuenek eta gure ingurune hurbilean garatzen diren jardunbide egokiek, komunitate-eremutik zerbitzu publikoak modu naturalean osatzen diren eredu berriei buruz hitz egiten digute. Elkarrekintza horrek zainketen euskal eredu berri bat eraiki dezake, zentzurik zabalenean, baina dauden egitura, rol eta erregulazio asko berrasmatzea eskatzen du.

Illo horretatik abiatuz, hainbat udaletan GizarteLab programa garatu dugu, bai eta bi trantsizioen komunitate abian jarri ere.



2

Belaunarteko GizarteLab: Mutiloa II

Belaunarteko GizarteLab:


Mutiloa II

Piramide Interaktiboak

Piramide interaktiboak bidez Euskal AEn bizi direnen bilakaera ezagutu dezakegu.

Piramide hauek zenbait estatistika-iturri erabiltzen dituzte: batetik, Udal Biztanleriaren Eguneratzearen (gero Biztanleen Udal Estatistikaren) biztanle-kontaketak, zeinaren iturri nagusia Biztanleen Udal errolda den; bestetik, Proiekzio Demografikoak, Euskal AEn etorkizuneko biztanleriaren nolakotasuna zenbatesten dutenak.

[motion chart](#)



Animazioa

☐ Gizon eta emakumezkoen arteko aldea erakutsi
☐ Adin-tarteak erakutsi eta aldatu
☒ Errepikatu
 Astiro Arin
☒ Ez jarraitu ezer
☐ Belaunaldi bat jarraitu
☐ Adin bat jarraitu

☐ Gizon eta emakumezkoen arteko aldea erakutsi

☐ Adin-tarteak erakutsi eta aldatu

Urtea 2022

Eremu geografikoa

Gipuzkoa Mutiloa


2022

Biztanleria	243	
Adina	-	-
Jalotze-urtea	-	-
Emakumezkoak	115	% 47,3
Gizonezkoak	128	% 52,7
Sexu ratioa (E/G)	0,90	
Erreferentzia data	2022/01/01	
Datu mota	Behaturiko datuak	

Adin-tarteak


Adina	Unitateetan	%			Sexu ratioa
		Guzt	Ema	Giz	
≥ 65	47	19,3	55,3	44,7	1,24
20-64	146	60,1	43,8	56,2	0,78
≤ 19	50	20,6	50,0	50,0	1,00
Guztira	243	100,0	47,3	52,7	0,90

Biztanleria osoaren eboluzioa



Iturria: Eustat. Adierazle demografikoak. Biztanleen udal-erroldaren estatistika. Biztanleria-proiekzioak

Populazioa (%) adin-tarteen arabera (2022)



Belaunaldi arteko GizarteLab:

Mutiloarrak elkar-zaintzen

Testuingurua eta aurrekariak

Gizarteak datozen urteetan izango ditu eraldaketen aurrean gaitasun sozialak garatzeko eta belaunaldi artekotasunaren garrantziaz sentsibilizatzeko asmoz, Mutiloan GizarteLAB programa inplementatzea proposatu genuen.

Izan ere, trantsizioko gizarte-gaitasunak eta belaunaldien arteko harremana landa-eremuan aztertu nahi izan genuen, Mutiloan GizarteLAB programa ezarriz.

Mutiloa betidanik izan da nekazaritzarekin lotutako lurraldea, aldi berean ordea, meatzaritzak sekulako pisua izan du, inguruko mendietan burdina eta kobre ugari bait dago.

Demografikoki **Gipuzkoako herri txikienetakoa izanik**, 243 biztanle ditu; horietatik %19,3 nagusiak dira (65 urtetik gorakoak), eta %20,6 haur eta gazteak (19 urtetik beherakoak). EAEko datuekin eta Gipuzkoako datuekin alderatzen baditugu, ez dago Mutiloa egoerarik txarrean, baina zahartzearen joerak ere goierriko herri honetara iristen doa pixkanaka.

Dena den, elkarte bakarra dago herrian (Txerri Gorri elkarte), eta oinarrizko zerbitzuak, beste eskualdeko herriein partekatzen ditu (garraioa, udal idazkaritza, osasun eta gizarte.zerbitzuak, eskola...). Azpiegitura batzuk baditu (frontoia, bola-tokia, ludoteka eta taberna), baina dendarik ez. Astean behin azoka txiki bat antolatzen da: Biziola azoka ibiltaria.

Erronka nagusien artean, **errelebo falta bai erakunde bai elkarteetan, eta nahi gabeko bakardadea**, batez ere baserrietan. Belaunarteko komunitate baten premia somatzen dute.

Egoera horri aurre egiteko, 2023ko azaroan GizarteLab programaren lehen faseari ekin zitzaion, bizilagunak belaunaldien arteko komunitateen beharraz sentsibilizatzeko eta esperientzia berritzaileak eta eraldatzaileak sortzeko tresnak emateko.





3

Mutiloarrak elkar-zaintzen 2024

Belaunaldi arteko GizarteLab

Mutiloarrak elkar-zaintzen

Leloa

Mutiloarrak elkar-zaintzen.
Datozen erronkei elkarrekin aurregiteko tailerrak

Helburuak

Aurreko urteko taldea **Komunitate** bihurtu (lotura, konfiantza, helburua)
Tokiko **ekintzak** diseinatu, prototipatu eta **implementatu**

Taldea

Hasierako taldetik gehienak (10etik 8k) bigarren fasearekin jarraitu nahi izan dute.
Taldearen osaerari dagokionez, emakumeak nabarmentzen dira gizonen gainetik (6 eta 2), eta batez besteko adina 47 urtekoa da. Tailerrak euskaraz egin dira.



Belaunaldi arteko GizarteLab

Mutiloarrak elkar-zaintzen

Egitaraua

- Ots. 26: Ekosistema eta harreman-sareak
- Mar. 11: Ortzimuga begibistan. Etorkizunen mapak
- Api. 08: Komunitatea, zertarako?
- Api. 22: Esperientzien diseinua eta alderantzizko marketina
- Mai. 06: Esperientzien prototipatzea
- Mai. 20: Kontu-kontari. Komunikazio eraginkorra.



Belaunaldi arteko GizarteLab

Mutiloarrak elkar-zaintzen

Ikuspegi metodologikoa

Eusko Ikaskuntzak sortutako metodologiak kontzeptu teorikoak eta funtsezko galderak konbinatzen ditu, laborategi arineko teknikekin (prototipatze azkarrak) eta dinamika parte-hartzaileekin.

Ingurune segurua eta elkarrekiko errespetuzko eta konfiantzazko giroa sortzea da helburua, non pertsona guztiek duten zer ikasia eta zer irakatsia. Trantsizioko gizarte-gaitasunak zeharka lantzen dira, erronkez eta izan ditzaketen irtenbideez bestelako ikuspegi eta enfoke berriak irekitzen diren bitartean.

Programak bidaia paraleloa eskaintzen du, alde batetik trebetasun pertsonalak eta, bestetik, gaitasun kolektiboak eta lankidetzakoak lantzeko. Bidaia horren amaieran, herritarren komunitateak sortzen dira, konfiantza- eta laguntza-sareak, tokiko ingurunean aldaketa esanguratsuak egiteko beharrezkoak diren tresne hornituak.

Baina, batez ere, programak sentibilizatu eta lehen urratsa eman nahi du, modu desberdinean pentsatzen hasteko eta gizarte-kohesiorako elementu gisa Komunitatearen garrantziaz jabetzeko.



[illegible]

A black and white photograph of a LEGO minifigure assembly on a white surface. The assembly includes various minifigures, including a Star Wars Stormtrooper, a cow, and several characters in uniform. They are arranged around a central area with some small structures and a large, multi-wheeled vehicle on the right. The background shows a dark surface with various tools and materials.

Belaunaldi arteko GizarteLab

Mutiloarrak elkar-zaintzen

Emaitzak

Komunitatearen ahultasunak eta errelebo falta gizarte-ekimenetan, bigarren fase honetan lantzea erabaki zen.

Lehenengo emaitzetako bat erronka identifikatzea izan zen, lortu nahi zen helburua, alegia. Eta konfiantzazko harreman-sare bat eraikitzea besterik ez zen izan, pixkanaka ekintzak garatuko eta herritarrak batuko dituen (**Konfiantzazko Sare Autonomo eta Independentea**).

Ondoren, hainbat esperientzia egingarri eta helburuari erantzuten ziotenak aztertu ziren. Horietako bi aukeratu ziren, eta biak diseinatu eta prototipatu ziren, xehetasunik txikiena ere zehazten saiatuz.

Zehazki, **Belaunaldien arteko Lehiaketa Gastronomikoa** eta Bizi Esperientziak landu ziren. Lehenengoan, hainbat belaunalditako pertsonak elkarlanean aritzea eta ekipoak osatzea da helburua. Prestatu beharreko platera gutxienekoa da; izan ere, helburu komun bati erantzuteko elkarrekin bizitzen ikastea, lankidetzan aritzea eta elkarrekin denbora pasatzea da gakoa.

Bizitza-esperientziak hitzaldi gidatuak dira. Horietan, herriko adineko lau pertsonak, bideratzaile baten laguntzaz, gai jakin bati buruz hitz egingo dute beren esperientziaz abiatuta (jaiak, landa-lanak, erlijio...).

Azkenik, komunikazio eraginkorra landu zen, eta entzun, gogoratu eta partekatuko den **narratiba** sortzeko beharrezkoak diren elementuak aztertu ziren.



Ebaluaketa

	Atala	1	2	3	4	5	Bataz beste
1	Tailerren antolaketa				3	5	4,6
2	Gaiaren interesa					8	5
3	Egindako aurkezpenak				3	5	4,6
4	Hausnarketa dinamikak			1	2	5	4,5
5	Asebetetze maila				3	5	4,6
6	Jarraipenik nahi?			1	1	6	4,6

Mutiloarrak
elkar-zaintzen

Gehien gustatu zaizuna?

Dinamikak: nahi gabe lan egin dugu
Dinamika berritzaileak
Parte-hartzaileen konpromisoa
Bukaeran egindako guztiak zentzua eta gorputza hartu duela
Gure artean sortu den giroa
Pentsa arazi digula
Orokorrean dena gustatu zait, gustura egon naiz oso.
Hasitako bideari ortzimuga ikusten hasi naiz. Taldea martxan jarri izana abiapuntu garrantzitsua da
Lan-talde bat sortu dela

Eta gutxien?

Nire kasuan, ordutegiarekin ezinean ibili naiz
Beste pertsona batzuk erakartzeko zailtasunak (agian etorkizunean)
Iraupena agian
Ezin izan dut saio guztietan parte-hartu (pena)

Zer eramaten duzu?

Aukera berria, bai bizilagunak ezagutzeko, baita komunitatean parte-hartzeko ere ilusioa!!!
Pausoz-pauso joan behar garela
Dinamika berritzaileak ezagutu izana
Elkarrekin, indarrak batuz ekintza eta erronka asko betetzeko gai garela
Taldearengandik jasotakua: pertsona oso ezberdinak elkarrekin





5

Ondorioak

Belaunaldi arteko GizarteLab

Mutiloarrak elkar-zaintzen

Ondorioak

Mutiloa kasu berezi eta bitxia da; herri txikia, zerbitzu gutxikoa, baina biztanleen asebetetze maila altua duena. Haien nahiak ez dira herri bezala haztea, baizik eta bizi-kalitatearen estandarrei eustea: lasaitasuna, natura eta populazio handiagoekiko hurbiltasuna, beharrezko zerbitzu guztiekin.

Baina, hala eta guztiz ere, Mutiloako bizilagunak ez daude biztanleriaren zahartzearen joera global handietatik eta bere ondorioetatik kanpo: nahi ez den bakardadea, asistentzia-arazoak, arrakala digitala, enpresen, elkarten eta erakundeen belaunaldi-erleborik eza, etab.

Bestalde, ehun komunitarioa ahulduz joan da eta laguntza-sareak gero eta hauskoragoak dira. Beharrezkoa da erreakzionatzea eta elkarrekiko zaintza-komunitate bat eraikitzen edo indartzen hastea, instituzioak iristen ez diren lekuetan eta uneetan jardun ahal izateko, funtsezko osagarria bihurtu daitezen.

Ildo horretan, azpimarratzekoa da programaren ondorio nagusietako bat Mutiloan herritarren komunitate bat eratzeko egindako urrats handia izango litzatekeela. Taldea sendotu egin da eta diseinatutako esperientziak inplementatzeko aukera emango dioten oinarritzko tresnak eskuratu ditu; behin gauzatuta, errazagoa izango da taldearentzat bizilagun gehiago erakartzea eta komunitatea haztea.

Ez da bapateko zerbait izango, ezta epe motzean ere, baina lehen pausoa eman da. Kontua da adimena ireki eta zentzumenak zorroztea, ikasitakoa iraunaraztea eta aplikatzea, eta sarearekin bizitzeko beharra denok daukagula jabetzeaz, edo etorkizunean izango dugula.



Eskerrik asko!

